

ETAREN su-etenak

Erreakzioak ♦ IU eta EGI

«Peoiren bat aurreratu eta erantzuna ikusteko sasoia» dela uste du Anguitak

Salbuespenik gabe, indar politiko guztien elkarrizketa eskatu du Rosa Aguilarrek

Julio Anguita Jose Maria Aznarrekin bilduko da gaur Moncloako jauregian, ETaren su-etenak eta aurrera begirako jokabidea aztertze-ko. IUko burukidea komentzitu dago Ajuria Eneko Itunak elkarrizketaren prozesua zabalteko jartzen dituen baldintzak betetzen direla, eta alde guztiekin, HB barne, hitz egin behar dela. Presoak hurbildu eta erantzuna ikustearen alde agertu zen.

Agentziak / Madril

AJURIA ENEKO ITUNAREN 10. puntua betetzen dela pentsatzen hasteko elementuak daudela uste du Anguitak. Egoera horretan, «peoiren bat aurreratzeko» premia ikusi eta erantzuna aztertze-ko asmoz agertu zen. IUko koordinatzaile federalak oroitarazi zuen alderdi sinatzaileek konpromezua hartu zutela Estatuaren eta biolentzia alde batera uzteko prest agertzen diren artean elkarrizketa bultzatzeko.

Testuinguru horretan, euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzea «hitz egin daitekeen gaietako bat» dela ohartarazi zuen. Anguita HBrekin kontatzearen alde agertu zen, «Ajuria Eneko 10. puntuak dion bezala, ETA barne. ETak uste badu HBk politikan ordezka dezakeela, HBrekin jezarriko gara». Dena den, «herriarren zati batek HBri ematen dio botoa, eta hori niretzat sakratua da», gaineratu zuen.

Haren esanetan, ETaren su-etenak «koherentzia frogak» egina-razten diela gaineratu zuen. Jose Maria Aznarrek HBrekin bildu beharko ote lukeen itaunduta, «lehenengo Gobernuak zer-pentsatzen duen ikusi behar da. Adostasunera heltzen bagara,



Maria Luisa Agirretxe eta Javier Madrazo, atzo Bilbon eskaintako prentsaurrekoan.

SANTIAGO JIMENEZ / EFE

HBrekin negoziatu beharko litza-teke», erantzun zuen.

Estatu Federalera heltzeko Konstituzioa aldatzearen aldeko

agertu zen. «Baina Eusko Lege-biltzarrak ezer erabakitzen badu, legediaren barruan egon behar du. Autodeterminazioari buruz-

ko edozein erreferendumez ez dauka lege baliorik alde aurretik Konstituzioa aldatu ez bada».

«Bakeak ezin du itxaron hauteskundeak iritsi arte» • Rosa Aguilarren aburuz, bidea politikoki egin nahi dutenei «ateak zabaltzeko, eskua luzatzeko unea da». Aguilarren esanetan, hau da unea esfortzuak egiteko, «bakeak ezin itxaron dezake hauteskundeak iritsi arte. Orain hitz egin behar da, eta guztion artean emango den erantzuna ikusi, denak sartu behar dira elkarrizketa politikoan, eta hainbat ari-nen hobeto».

Aguilarren aburuz, «Gobernuak eta PPK jakitun egon behar dute ezin diotela beraien planteamendua inori ezarri. PSOE jakin behar du malgutasunetik eta elkarrizketa eta akordioetarako prestutasunetik soilik aurrera daitekeela bakerantz». X

♦ Madrazo eta Taberna Madrilen ♦

Iñaki Uriarte / Bilbo. Gaur Julio Anguitak Jose Maria Aznarrekin izango duen bilera prestatzeko, Javier Madrazo eta Felix Taberna, EAE eta Nafarroako Iuren arduradunak, Anguita eta Rosa Aguilarrekin bildu ziren Madrilen. Madrazo eta Tabernaren esanetan, bileraren xedea Iuren eremu guztietako iritziak koordinatzea izan da. Madrazok aurreratu zuen IUK hiru mezu helaraziko dizkiola Aznarri.

Lehehengoan, bake prozesua «atzerazina» dela iritzita, IUK «ausardia» eskatuko dio Aznarri. Bestalde, «distentsio keinuak ahalbidetzeko premia politiko eta soziala» dagoela. Testuinguru horretan presoak Euskal Herriratzeko plangintza, zigorraren 3/4 bete duten presoak aske uztea eta gaixo sendaezina kale-ratzea eskatuko dio IUK. Hala ere, Madrazok argi utzi zuen ez direla lotu behar presoak eta bake prozesua. «Ezin planteatu daiteke bakea presoekin, konponbide txarra da, eta ez du Euskadiko arazoan konponbidea ahalbidetuko», esan zuen.

Azkenik, elkarrizketa prozesua zabaltzeko gunea EAEko Lege-biltzarra izan dadila proposatuko diote.

Azken hitza euskal gizartearen esku dagoela dio EGIk

■ Asier Aranbarri: «Orain gauza guztietaz hitz egin daiteke, muga bakarra herriaren borondate librea da»

Idoia Guenaga / Bilbo

«ASKATASUNA JOKOAN» lema aukeratu du aurten EGIk Alderdi egunerako, eta atzo Bilbon azaldu zuten, «kartelean xakeko fitxa bat mugitzen agertzen da». Asier Aranbarri EGIko burukidearen esanetan, «bi horiek lotu egin behar dira: askatasuna dago jokoan, eta beraz, fitxa mugitze-ko garaia da».

ETaren su-etenarekin bi puntu nagusi onartu dira, Aranbarri esan zuenez: «Batetik, ETak

lehen aldiz onartzen du bide demokratikoetatik herri honen etorkizuna eraikitze-ko aukerak badaudela. Eta bestetik, etorkizunari begira, herri honi konponbidea euskal gizarteak emango diola onartzen du». ETaren komunikatuan azaltzen diren puntu horiek klabeak dira Aranbarrientzat: «Azken batean, argi dago etorkizunari begira aukera guztiak zabaltzen zaizkigula». Orain herri honetan gauza guztietaz hitz egin daitekeela eta aukera politiko guztiek bideraga-

riak izan behar dutela uste du. Hitz egiteko muga bakarra herri honen borondate librea dela baieztatu zuen: «Etorkizuna herri honek nahi duena izango da, herriak baitu beti azken hitza».

Herri honen interes orokorrari begira beharrezkoa den lana egiten hasteko eskaera egin zien EGIk alderdi politiko, gizarte mugimendu eta komunikabideei: «Lan hori fitxa mugituz egiten da. Eta fitxa nola mugitzen den bakoitzak daki ondoen». Horrekin batera, hain kontrajarriak

diren diskurtsoak lotzea etorkizunera begira duten erronka da: «Ideia kontrajarriez osatutako puzzle hori antolatzen joatea ez da hain zaila izango guztiok borondate minimoa jartzen badugu, eta guztiok zentzuz jokatzen baldin badugu».

Jarriaren balorazioaren inguruan, Jarraik su-etenarekin bat egiten duenez, eta gazte borroka jarraituko duela esaten duenez, borroka «bide demokratiko eta pazifikoetatik enfokatuko duela» ulertzen du Aranbarri. X

laburrean

■ Aznar EAEko PPKo hautagaien aurkezpenean izango da Donostian

DATORREN larunbatean Donostiako Atano III. Pilotalekuan izango da EAEko hauteskunde autonomikoetarako PPKo hautagaien aurkezpenean. Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuako presidentea bertan izango dela iragarri du PPK. Urriaren 25eko hauteskundeetarako abiapuntua izan asmo du ekitaldiak. Aznarrez gain, Carlos Iturgaitz EAEko lehendakari-gaiak, Carmelo Barrio Arabako zerrendaburuak eta Ricardo Hueso Gipuzkoako zerrendaburuak hitz egingo dute. X

■ AABen ekitaldia Amistad kaleko tiroketaren urteurrenean

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEEK ekitaldi politiko eta manifestazio batez oroitu dute Jose Miguel Bustinza eta Gaizka Gaztelumendi, Guardia zibilarren tiropean hildako etakideak. Ostegunean, lehen urteurrenean, Bilboko Arriaga plazan ekitaldi politiko bat deitu dute 19:30etarako. Haren ostean manifestazio bat abiatuko da, eta bidean plaka bat jarriko dute Amistad kalean. Larunbatean omenaldiak antolatuko dituzte hildakoen herrietan. X

■ Hogeia egun bete ditu gose greban Iñaki Lopez de Bergarak

IÑAKI LOPEZ DE BERGARA Uzerchen dagoen presoak 20. eguna bete zuen atzo gose greban, Frantziako duen zigorraren bete ondoren ez dezaten Espainiaratu, bertan torturatu-ko duten beldur baita. Gureak adierazi duenez, 12 kilo galdu ditu, eta bere osasun egoeraz kezkatutik daude. «Euskal Herrian bizitzeko eskubidea aldarrikatzen duten erefuxiatuen kontrako kanporaketak geldituz, Frantziak urrats bat egiten luke bake bidean», esan du Gureak. X

■ Ahetzeko Udalak Euskal Departamenduaren aldeko mozioa onartu du

EUSKAL Departamenduaren aldeko mozioa onartu du Ahetzeko Udalak, joan den astean egin udal kontseiluan. 14 kontseilarietarik zortzik eman zuten baiezkua, hiruk ezezkoa eta hiruk abstentziora jo zuten. Beskoitze eta Bidarteren ondoren, Euskal Departamenduaren alde agertu den Lapurdiko hirugarren Udala izan da, orain dela bi urte auzapezen %63 alde agertu ostean. Nafarroa Beherean Bastida da mozioa bozkatu eta onartu duen bakarra. X